Zubia, etxearen azpian

Baserriaren interpretazio zentroaren ibilbidearen amaieran Igartubeiti baserriaren eguneroko lanak ikus daitezke, bisitaria baserrian bertan balego bezala. MIKEL ZUBIA/ARGAZKI ARCHIVO

JON ORDOÑEZ
Ezkio-Itsaso

Iñaki Mendiguren idazle eta itzultzailea da Igartubeiti baserrian jaio diren azken auzotarretako bat, 1954. urtean. Etxea XVI. mendekoa da, eta bost mendetan asko dira Ezkio-Itsasoko baserri horretan (Gipuzkoa) mundura etorri direnak. Mendiguren hitzetan, XX. mendean gogorra zen bizitza Igartubeitin: «Hotza, hezetasuna... Ur korrontea orain dela 48 urte jarri zen, eta argindarra ere bai, argi triste-tristea. Baina bainurik ez genuen inoiz izan! Komuna zulo bat zen; dena idien ukuilura joaten zen, eta gero azpiekin batera ateratzen zen. Hori zen saneamendu sistema!», adierazi zion BERRIARI iaz urrian. Igartubeiti beste mende batean sartu da, eta haren barruak ez du 50 urte atzerago gordetzen zuen gordintasunaren arrastorik; gozoagoa da orain. 2001. urtean zaharberritu zuten etxea, eta sorrerako aurpegi samurra itzuli zioten. Bi garai horien arteko zubia azpian egin duten interpretazio zentroak egingo du bihartik aurrera. Orduan irekiko dute hori.

Errekako urak zubiari bezala, interpretazio zentroak emango dio bizia Igartubeiti baserriari. Gipuzkoako Aldundiak erosi zuen etxea 1992. urtean, eta zaharberritu ondoren, interpretazio zentroa egiten hasi zen. Baserriak galbideandauden honetan, horien sorrera eta garapena azaltzea da helburua, altxatu zuteneko irudi, hots, pertsonaia eta gauzen bitartez. 672 metro koadro da zentroa, eta 2,6 milioi euro erabili dituzte egiteko. Etxearen inguruneaez hondatzearren, aparkalekuaren azpian egin dute.

> Ezkio-Itsasoko Igartubeiti etxearen azpian baserriaren interpretazio zentroa zabalduko dute etzi, horien sorrera eta garapena azaltzeko.

ETXOLAK AITZINDARI. Kattalin Kortaberria 1596. urtean jaio zen, Igartubeitin, Iñaki Mendiguren baino 359 urte lehenago, lehen auzotarreko bat izan zen. Berak egiten du ongietorria interpretazio zentroan, eta orain dela bost mendeko kontuen berri ematen du. Igartubeiti baserriak inguruan aurkitu duten etxola zahar bat du aitzindari. Jendea etxola horietan bizi omen zen orain dela 1.000 urte, gaztainondo egurren eta isats landareen babesean. Jendea basoan sakabanatzen hasi zenean sortu omen ziren baserriak, interpretazio zentroan azaltzen dutenez.

Dolareen inguruan sortu ziren lehen baserriak, eta etxolatik baserrirako aldaketa sagarrak behartu zuen Igartubeitinere; Kattalinen arabera, «Gipuzkoako fruitu eta landareen artetik, gozoena». Baserri guztietan egiten zen sagardoa XVI. mendean. Dolarea Erromatar Inperioaren garaiko asmakuntza da, eta Europa osora zabaldu zen gero. Euskal Herrian, ordea, beste leku batzuetan izan ez zuen berezitasuna izan zuen: lantoki izateaz gain, bizileku ere bihurtu ziren.

Igartubeiti oinarriko bizilekua izan zen hasiera batean. Logela bakarra zegoen, eta etxeko guztiek elkarrekin egiten zuten lo, gizonezkoek txoko batean eta emakumezkoek beste batean. Etxea XVII. mendearen hasieran handitu zuten, Domingo Arregi Kattalinekin ezkondu eta ezkonsariarekin bizitzera joan ondoren. Garai horretan *Indiako artoak* erabat aldatu zituen baserriak. Berehala hartu zuen lekua Euskal Herriko baratzeetan Amerikatik ekarritako zereal horrek, irina taloak egiteko oso apropos zelako, eta taloek eguraldi txarrak hondatutako uztak uzten zuen hutsunea betetzen zutelako.

Artoak airea behar du, eta Igartubeitin hasierako egurrezko egitura harriz inguratu eta handitu egin zuten. Artoa gordetzeko lekua egiteaz gain, beste bi logela egiteko lekua ere izan zen harrezkero etxean. 1630. urtean amaitu zituzten lanak.

BIZIMODU BATEN GAINBEHERA. Artoa elikagai garrantzitsua izan zen XIX. mendean, batik bat, karlistaden eta iraultza industrialaren beharrei aurre egiteko. Orduan, ordea, hasi zen baserrien gainbehera. Lanteglek Jendea erakarri zuten, eta baserriak husten hasi ziren. Baserrian laneskua galdu ahala hasi ziren desagertzen, gaur egun arte. Interpretazio zentroa bada bere horretan galtzen ari den bizimodu baten ikur, gogoraraztekobeharra dakarrelako. Iñaki Mendigurenen hitzek argi uzten dutenez, XIX. mendean hasitako aldaketak jarraipena izan zutela XX.ean, eta bizimodu hobe baten mesedetan, baserrietakoa galduz joan zen, baserri batzuk zutik irauten badute ere.

■ IRUDIZ ETA SOINUZ BETERIKO IBILBIDEA

ENCO FEZ

Izen eta abizenak dituen museoa

XVI. mendeko baserri bat ikusteko Igartubeitira joan behar bada ere, garai horretako bizimodua ikusteko, interpretazio zentroa ezagutu behar da. Teknologia berriak dira gaurkoa ez den beste bizimodu bat ezagutzeko bidea, eta bideoek eta argi efektuek ibilbide guztian laguntzen dute bisitaria. Gainera, zenbait gunetan ukitze-pantailak daude, eta bisitariak gehien interesatzen zaizkion eduklak aukera ditzake. Hainbat gune ditu guztira ibilbideak, eta 45 minututan osatzen da. Amaitzean benetako baserrian jarraitzen du bisitak.

Harrera

Baso bat irudikatzen duen gela bat zeharkatu ondoren, Kattalin Kortaberriak egiten ditu ongietorria eta aurkezpena.

Baserrien historia

Areto luze batean baserrien sorrera, garapena eta gainbehera azaltzen du Kattalinek. Betaurreko berezi batzuekin hiru dimentsioetan dolarea martxan ikus daiteke.

Baserriak eta bertako bizia

■ **Baserriko gauzak:** Baserriko arropak, lanabes eta tresnak, erlijioari lotutako gauzak (argizaiola bat eta Ezkion Andra Mari agertu omen zeneko prentsa orriak tartean) eta oinordetzari buruzkoak daude ikusgai. Bideoan XX. merideko ezkontza bat, heriotza bat eta Zumarragako ezpata-dantza ikus daitezke.

■ **Baserriko lanak:** baserriaren erdialdea irudikatzen duen gela batetik, eguneroko bizimodua irudikatzen dute, besteak beste, sagarrak dolarean uzten, erlaitza konpontzen, artoa aletzen, basapiztientzako tranpak prestatzen, umea korrika eta behiak ukuiluan.

■ **Baserrien sailkapena:** zazpi ataletan sailkatu dituzte baserriak, bakoitzaren antolaketaren eta funtzioaren arabera.

Igartubeitiko auzotarrak, XVII. mendeko pertsonaiak

■ **Ana Igartua:** Etxeko amona, Kattalinen ama. Etxola zaharretik dolare baserria bizitzera joandakoa.

■ **Felipe Lazkano:** Lazkaoko Oria etxeko jauntxoa. Bere ondasunen berri eman eta Gaztelaren alde egin zuela borroka azaltzen du.

■ **Martintxo Beiti (Arregi):** Txoriak harrapatzea gustuko duen 11 urteko ume koskorra.

■ **Maria Salete:** Ezkioko bizilaguna.

■ **Domingo Aranburu:** Apaiza.

■ **Domingo Irizar:** Itsasoko bizilaguna, marinela, oinordekoa ez zelako Veracruzera (Mexiko) joandakoa.

■ **Kattalin Kortaberria:** Igartubeitiko etxekoandrea, etxean bertan jaioa.

■ **Domingo Arregi:** Kattalinen senarra, eta etxeko nagusia, Azpeiti aldetik Igartubeitira ezkontzera joandakoa.

Domingo Irizar itsas kapitaina, bere bizitzaren azalpenak ematen.

Emakume bat, XX. mendeko Zumarragako ezpata-dantzaren bideoa ikusten.

Bisitariak, tartean Joxe Juan Gonzalez Tzabarri, hiru dimentsioko irudia ikusten.

Escaneado con CamScanner